

**DATUAK:** • Luzera: 17 km • Desnibela: 350 m • Zailtasuna: Ertaina • Abiapuntua: Eskas

### DESKRIBAPENA:

Eskaseko atezaindegiko aparkalekuan autoa utzi (650 m) eta etxearen parean dagoen PR-NA 125aren seinalearen norabidea hartuta abiatuko gara, alertze baso bat zeharkatuz.

Abiapuntutik 1,5 km ingurura, Madariarte izeneko zabalgunea topatuko dugu, pago motz eta txondor plaza ugarirekin. Bideari jarraituta, basotik atera eta larre artetik Burnaiztietako lepora iritsiko gara (745 m). Han, harrespil bat topatuko dugu.

Aurrerago, Artikutzako muga markatzen duen hesiaren eta borda baten ondotik igaro eta gero, Bidangoko bidegurutzea dago (750 m). Eskuineko bideak Elizmendikoarekin egiten du bat; zuzen doanak, urtegia inguratzen doan bidearekin; eta ezkerrekoak, guri interesatzen zaigunak, PR-NA 125arekin.

Pagolletako gainean (654 m) topatuko dugu hurrengo seinalea. Han, aurrera egingo dugu, Izu alderantz. Eskuinerantz hartuz gero, Enobieta urtegiari bira ematen dion ibilbidearekin egingo genduke topo.

Ataka batera iritsiko gara, eta hura pasatu gabe, aurrerantz egingo dugu, pagadipean maldan gora. Izu mendiaren tontorrera iritsi aurretik, basotik irten orduko, bidegurutze batekin egingo dugu topo. Ezker aldera, 5 bat minututara, Izuko gaina dago (829 m). Gure ibilbideak, ordea, eskuin aldetik jarraitzen du, PR-NA 125ari segituz.

Maldan behera, pista oso malkartsu bat hartuko dugu, eta, bihurgune handi batera iristean, pista utzi eta zuzen-zuzen basoan sartuko gara, urtegiako pista doan bidezidorra hartuz. Handik, Artikutza auzora (315 m) iristeko 10 bat minutu daude. Bi bide daude: pistari jarraitzea edo presaren paretaren alboko laburbidetik jaitea.

Herrian gaudela, 11,66 km egin ondoren, ermitarantz doan pista hartuko dugu, handik Eskasera itzultzeko. Urtegia inguratzen duen pistan topatuko duzu ezkerreko Elizmendiko bidetik goraino eramango zaituen bidearen seinalea.

